



Erosketak eta etxeko hondakinen kudeaketa



ingurumena.net

*Gure esku dago
está en nuestras manos*

EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020k EAeko biztanleek gure planetaren oraina eta geroa bermatzeko hartu beharreko ingurumen-konpromisoak jasotzen ditu. Bestetik, Gobernu Kontseiluak **Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana 2006-2010** onartu du, sortzen ditugun hondakinen kopurua ahal beste murrizteko, erosketa-eredu arduratsuagoa sustatuz.

Kontsumoak, iraunkorra izateko, hobekuntza errealak ekarri behar dizkio pertsonen bizi-kalitateari, ezin du arriskuan jarri etorkizuneko belaunaldien kontsumo-gaitasuna, eta banaketa bidezkoagoa eta zuzenagoa lortu behar du. Azken batean, kontsumo iraunkorra eta arduratsua bultzatu behar dugu, produktu hobek, garbiagoak eta bizi-ziklo iraunkorragoak kontsumituz.

Nazio Batuen Ingurumen Programak (PNUMA) sustatutako **GAP Programak** (Ekintza Plan Globala) eguneroko jokabideak hobetzen laguntzen du, honako arlo hauek landuz: erosketak eta hondakinen kudeaketa, ur-kontsumoa, energia-kontsumoa eta garraioa. 2003. urtean Debabarrena eta Urdabai eskualdeetan egindako esperientzia pilotuak erakutsi duenez, GAP Programa oso tresna baliagarria da Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-estrategia aurrera eramateko. Bestek beste, programan parte hartu zuten 4.000 familiek 15 milioi litro ur gutxiago kontsumitu zuten etxean (50 metroko 6 igerileku olinpiarretan sartzen den ur kopurua), eta 700 tona CO₂ gutxiago igorri zuten.

2007ko urtarriletik maiatzera arte, lau eskuliburu jasoko dituzu etxean: **Erosketak eta etxeko hondakinen kudeaketa** eta beste hiru energiari, urari eta garraioari buruzkoak, hain zuzen. Ingurumena zaintzeko etxean bertan egin ditzakezun zazpi ekintza praktikoa jasotzen ditu eskuliburu bakoitzak. Gainera, galdera-sorta bat bidaliko dizugu eskuliburu bakoitzarekin batera, zure aurrerapenak ebaluatzeko eta zer lortzen ari zaren jakin dezazun. Galdera-sorta bakoitza bete ondoren, atzera bidali behar diguzu.

**Joka ezazu ingurumenaren alde,
irabazi egingo duzu eta:**

- **Klima-aldaketaren aurka borrokatuko zara**
- **Etxeko kontsumoa murriztuko duzu**
- **Dirua aurreztuko duzu**
- **Zure ingurunea hobetuko duzu**

¡Gure esku dago!



Informazio gehiago nahi baduzu,
deitu 902 404 525 telefonora.
GAP©. GAP Euskadi, 95FD posta-kutxa,
48080 Bilbo



ingurumena.net

Gure esku dago





7 EKINTZA PRAKTIKO

1 EZ JOAN ESKU-HUTSIK DENDARA

Ondo prestatuta joan erosketak egitera 4. or.

2 PRODUKTUAK EROSI, EZ BILGARRIAK

Alferrikako bilgarri gutxiago eraman etxera 6. or.

3 ALDERATU ETA ERABAKI

Erosi baino lehen, irakurri 8. or.

4 LURRARI KALTERIK EGIN GABE JAN

Nekazaritza ekologikoko produktuak 10. or.

5 ELKARTASUNEZ EROSI

Elkartasuna erosketetan 12. or.

6 ONDASUN BATZUEK EHUN URTE IRAUTEN DUTE

Erabili eta botatzeko produkturik ez 14. or.

7 GAUZA BAKOITZA BERE LEKUAN!

Parte hartu hondakinak gaika biltzeko programetan 16. or.



EZ JOAN ESKU-HUTSIK DENDARA

Zergatik ekin?

Pentsatu al duzu inoiz plastikozko zenbat poltsa erabiltzen dituzun erosketak etxera eramateko? GAP Programaren barruan egindako esperientzietako datuen arabera, batez beste pertsona bakoitzak 300 poltsa kontsumitzen ditu urtean.

Ba al zenekien plastikozko poltsa arrunt batek 150 urte behar dituela desagertzeko?

Ekintza xume batzuen bidez, asko murriztu ahal dugu mota horretako hondakinen kopurua.

EKINTZA: ondo prestatuta joan erosketak egitera

- Egin ezazu erosi beharrekoen zerrenda, eta eraman beti etxetik zure poltsak edo gurditxoak.
- Saia zaitetz frutak eta barazkiak aleka erosten.
- Etxean plastikozko poltsak pilatzen bazaizkizu, zarama-poltsa gisa erabili.

Aurrezpena Lurrarentzat



Familia arrunt batek tona bat zabor sortzen du urtean. Kopuru horretatik, 150 kilo metalezko ontziak, plastikoa eta tetrabrikak dira. Plastikozko poltsen eta alferrikako ontzien erabilera murrizten badugu, ingurumenari laguntzen diogu.

Aurrezpena zure etxearentzat



Hala gurditxoak nola etxetik eramandako poltsek edukiera mugatua dutenez gero, ardura handiagoz kontsumituko duzu.

Denda batzuetan, kobratu egiten dituzte bertan hartzen diren poltsak. Beraz, zure poltsak edo gurditxoak eramaten badituzu, dirua aurreztuko duzu.

EROSTEKO ERA ZAHARRAK ETA BERRIAK

Aspaldi ez dela, herritar gehienak beren gurditxoarekin joaten ziren erosketak egitera. Gaur egun, ordea, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehien-gehienek plastikozko poltsak erabiltzen dituzte erosketa guztietan, gurditxoaren edo norberaren saskiaren ordez. Zer gertatu da hain denbora laburrean erosteko ohiturak hainbeste aldatzeko?

Supermerkatu batzuek diru kopuru bat kobratzen dute bertan hartzen den poltsa bakoitzeko, baina, hala eta guztiz ere, plastikozko poltsak erabiltzen jarraitzen dugu.

Gainera, erosteko era berriak nagusitzen ari dira gure gizartean. Etxerako produktuen eta janari-edarien eskaria gero eta handiagoa da. Jakina denez, jaki prestatuen eta “eramateko janariaren” eskaria izugarri handitu da mundu zabalean, eta hori oso kezagarria da, kontsumitzeko era berri horrek, besteak beste, hondakin gehiago sortzen duelako.

Ilido horretan, **Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana 2006-2010**en helburuetako bat sortzen dugun hondakin kopurua ahal beste murriztea da, erosteko era arduratsuagoa sustatuz.





PRODUKTUAK EROSI, EZ BILGARRIAK

Zergatik ekin?

Konturatu al zara zenbat ontzi eta bilgarri eramaten dituzun etxera erosketak egiten dituzun bakoitzean?

Ba al zenekien bilgarriak eta ontziak gure zarama-poltsaren erdia edo herena direla?

Bilgarri horiek ez dute produktuaren kalitatea hobetzen, prezioa garestitu baino ez dute egiten.

EKINTZA: alferrikako bilgarri gutxiago eraman etxera

- Aukera itzazu beren segurtasuna eta higiena ziurtatzeko ezinbestekoa den gutxieneko bilgarria soilik duten produktuak. Esaterako, paperezko paketeak, oihalezko zorrotxoak edo kartoizko kutxarrik gabeko kontserba-latak.
- Ez erosi paketatutako produktu galkorrik. Esaterako, ez erosi tomateak edo arrain freskoa poliespanezko erretiluetan.
- Produktu ontziratuak erosten dituzunean, kontuan izan ontziak birziklatu ahal direla. Erabiltzen den beira edo kartoi gehiena material birziklatua da.

Aurrezpena Lurrarentzat



Ontziak eta bilgarriak egiteko prozesuak kutsadura sortzen du. Gainera, erabilitakoan, ontziak nahiz bilgarriak hondakin bihurtzen dira.

Aurrezpena zure etxearentzat



Ontzirik edo bilgarririk gabeko produktuak erosten baditugu, ez dugu azkenean usteltzen zaigun janaririk pilatuko etxean.

Gehiegizko bilgarriak dituzten produktuak garestiagoak izaten dira, bilgarria ere prezioan sartuta baitago.

ERABILI ETA BOTATZEKO ONTZIEN ARRASTOAREN ATZETIK

Energia eta lehengaiak oso merkeak zirenez gero (petrolio, mineralak, paper-orea), XX. mendearen erdialdetik aurrera mordoka fabrikatu ahal ziren ontzi eta bilgarri seguruak, erabilera anitzekoak eta higienikoak, eta kontsumitzaileentzako informazioa kolore biziekin inprimatu ahal zen. Gure bizi-baldintzak hobetu zituen horrek, baina inor ez zen konturatu zarama kopuru ikaragarria ere sortzen zela, eta zarama hori arriskutsua, tratatzen zaila eta ingurumenarentzat kaltegarria zela.

Marketina eta kontsumitzaileen segurtasuna bereiztea, horixe da kontua. Esaterako, kontserba-latak asmakizun zoragarria dira kalitate oneko elikagaiak hozkailuetan eduki beharrik gabe banatzeko, baina ez da beharrezkoa latak kartoizko kutxatiletan sartzea.

Kontsumitzaileak garen aldetik, erosketak egiterakoan kontuan hartu behar dugu bilgarriaren materiala berreskuratzen eta birziklatzen erraza den ala ez. Material bakarrekoak konposatuak baino errazago birziklatzen dira. Esaterako, beirazko botila edo pota bat beste zeregin askotarako berrerabili eta hainbat bider birziklatu ahal da.

GAP 2004 proba pilotuaren emaitzak (Debabarrena - Urdaibai)

	EUSKADI	ERRESUMA BATUA	AEB	HOLANDA
EDUKIONTZIEN ERABILERAREN IGOERA	%10	%14	%9	%8

Etorkizunari begira, hondakinak gutxitzea izan behar da gure erronka. Horixe da, hain zuzen, **Ingurumenaren aldetik Iraunkorra den Euskal Kontsumo Plana 2006-2010**en helburuetako bat.



3

ALDERATU ETA ERABAKI

Zergatik ekin?

Erosketak egitera joaten zarenean, prezioaz gain, beste aldagaririk hartzen duzu kontuan?

Kontsumitzaileak garen galdetik, erosketak egiteko unea da ingurumena hobetzen laguntzeko abagunerik onena.

Ba al zenekien 2.000 produktuk baino gehiagok Europako etiketa ekologikoa dutela?

Zer erosiko dugun erabaki aurretik, informazioa bildu behar dugu, arduraz aukeratu ahal izateko.

EKINTZA: erosi baino lehen, irakurri

- Zerbait erosterakoan, preziorik merkeena ez da kontuan hartu beharreko gauza bakarra.
- Arretaz irakurri produktuen etiketak edo fabrikatzaileak ematen dizun informazioa. Etiketa batzuek argibide ugari dituzte: energia-kontsumoa, osagaien birziklagarritasuna, produkzio ekologikoaren bermea edo osagaien toxikotasunik eza.
- Produktu askotan bezeroentzako telefonoak daude. Ingurumenari dagokionez produktu batek dituen ezaugarriei buruzko zalantzarik baduzu, deitu telefono horietara.

Aurrezpena Lurrarentzat



Arduraz erosteko, kontuan izan behar ditugu erosten ditugun produktuak fabrikatzean ingurumenari egiten zaion kaltea eta produktuak deuseztatzean sortzen diren hondakinak.


Aurrezpena zure etxearentzat



Produktuen osagaiei buruzko informazio zehatza badugu, kontsumitzen ditugun produktuak hobeak eta seguruagoak izango dira.

ETIKETAK

Ontzi eta bilgarriek badute abantaila bat: publizitate-mezuak ez ezik, produktuari buruzko informazioa ere jar daiteke. Eta hori laguntza handia da erosketak egiteko orduan.



Etiketresna elektrikoek energia-eraginkortasunari buruzko informazioa daukate etiketan. Kontsumo maila bakoitzari letra bat dagokio: txikia (A, B eta C), tartekoa (D eta E) eta handia (F eta G). Beraz, erostean garestiago kostatzen zaigun arren, A edo B mailako hozkailu bat merkeagoa aterako zaigu beraren bizialdi osoa kontuan izanik, gure elektrizitatearen faktura murriztuko du eta.

Europako etiketa ekologikoak bere bizi-ziklo osoan produktuak ingurumena ondo babesten duela ziurtatzen du.



Baso-ziurtagiriak (FSC) etiketa hori daukaten altzariak ekologikoki kudeatutako basoetatik ateratako zurez eginda daudela bermatzen du.



ISO 14001 eta EMAS ziurtagiriak produkzio-prozesuak ingurumenaren gaineko eraginik txikiena bermatuz egiten direla adierazten dute.



Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza:

Donostia-San Sebastián, 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz.
Tel.: 945 01 99 23 / Fax: 945 01 99 31
E-mail: consumo@ej-gv.es
Web: <http://www.kontsumo.net>

Kontsumoari buruzko informazio-telefono doakoa
900 600 500

4

LURRARI KALTERIK EGIN GABE JAN

Zergatik ekin?

Aintzat hartu ohi duzu erosten dituzun produktuen jatorria? Azoketara iristen diren janari gehienak ongarri kimiko eta plagizida ugari erabiliz landutako lursailetatik datoz. Nekazaritza ekologikoa lurra lantzeko modu berri bat da, ingurumena errespetatzen duena.

Ba al zenekien nekazaritza ekologikoak lurraren emankortasuna handitu eta ekosistemen nahiz laborantzaren ziklo naturala errespetatzen duela?

EKINTZA: nekazaritza ekologikoa eta tokian tokiko produktuak

- Bila itzazu nekazaritza ekologikoaren zigilua daukaten produktuak. Ez dira denda guztietan aurkitzen, baina gero eta ugariagoak dira.
- Ahal baduzu, jo ezazu zuzenean ekoizleengana edo kontsumo ekologikoko kooperatibetara. Ekoizteko modua dela eta, horrelako elikagaiak oso onuragarriak dira, eta, gainera, banaketarako beharrezkoa den garraioaren inpaktua gutxituko duzu.
- Kontsumitu tokian tokiko eta sasoian sasoiko produktuak. Horrela, garraioak ingurumenean duen eragina apalduko duzu, zure elikadura oparoagoa eta egokiagoa izango da, eta produktu bakoitzaren bizi-ziklo naturala errespetatuko duzu.

Aurrezpena Lurrarentzat



Nekazaritza ekologikoari esker, bioaniztasuna handitzen da, ura ez da pestizidekin kutsatzen eta lurzorua hobeto kontserbatzen da.

Bertoko produktuek gure ingurunerik hurbilena dute jatorri. Horregatik, dendetara garraiatzean, eragin apalagoa dute ingurumenean.

Aurrezpena zure etxearentzat



Garestixeagoak badira ere, gogoan izan herri-esaera: osasunak ez du preziorik.

LURRA LANTZEKO SISTEMA IRAUNKORRAK

Nekazaritza dugu lurzoruaren orekan eraginik handiena duten jardueretako bat. Aspalditik, hauxe izan da nekazaritzaren funtsa: lurzorua inoiz agortzen ez den baliabidea da eta etengabe areagotu ahal ditu bere emankortasuna eta errendimendua.

Nekazaritza ekologikoa nekazarien lana ulertzeko modu berri bat da. Lurraldea ekosistematzat hartzen du, zeinean nekazariak errendimendu iraunkorak lortzen saiatzen diren, tokian tokiko baliabideak agortu gabe.

Nekazaritza ekologikoa, biologikoa, organikoa, biodinamikoa edo biologiko-dinamikoa: izendapen horiek guztiek nekazaritza-sistema berri bat definitzen dute. Beraren helburu nagusia kalitatearik oneneko produktuak lortzea da, hala elikadurari nola osasunari dagokienez, baina ingurumena errespetatuz eta lurzoruaren emankortasuna gordez edo areagotuz, ahalik eta modurik onenean ustiatuz eta sintesi-produktu kimikoak erabili gabe.

Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020ren helburuetako bat hauxe zen: 2006. urterako nekazaritza ekologikorako erabilitako lurren azalera 300 hektarea izatea, eta gaur egun guztira dagoen azalera 1.050 hektarea da.



ORTUARIAK ETA BARAZKIAK											
HILABETE	U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A
Zerba	✓	✓	✓								✓
Orburua	✓	✓	✓	✓	✓					✓	✓
Aza	✓	✓	✓								✓
Kuiatxoa/Kuia						✓	✓	✓	✓		
Leka				✓	✓	✓	✓	✓	✓		
Piperra						✓	✓	✓	✓	✓	✓
Porrúa	✓	✓	✓						✓	✓	✓
Tomatea						✓	✓	✓	✓		
Azenarioa						✓	✓	✓	✓	✓	✓



www.ekonekazaritza.net

5

ELKARTASUNEZ EROSI

Zergatik ekin?

Merkataritza gure gizartearen oinarrian dago. Ezin konta ahala objektu erosi eta saldu egiten dira, baina haietako bakoitzaren atzean dagoen historia beti ez da bidezkoa: herrialde txiroetako langileen esplotazioa, animalia- eta landare-espezie babestuen merkataritza, haurren lana...

Ba al zenekien 5 eta 14 urte bitarteko 250 miloi haur inguruk baldintza ezin penagarriagoetan lan egiten dutela?

Erosten dugunaren jatorriari arreta jarritz gero, oso leku urrunetan kalteak eragitea eragotz dezakegu.

EKINTZA: elkartasuna erosketetan

- Ahal baduzu, kontsumitu bidezko merkataritzako produktuak eta joan bidezko merkataritzan aritzen diren dendetara. Horrela, produktu horiek ekoitzi dituztenen eskubideak errespetatzen direla ziurtatuko duzu.
- Ez erosi jatorri ezezaguneko larrurik, maskota exotikorik, bolizko edo koralezko oroigarriak eta horrelakorik. Beharbada, espezie babestuen heriotza eragin dute.

Aurrezpena Lurrarentzat



Bidezko merkataritzako produktuek ingurumena errespetatzen dela eta tokian tokiko inguruneak bizirik iraungo duela bermatzen dute.

Aurrezpena zure etxearentzat



Garapen-bidean dauden herrialdeetako biztanleei laguntzeak diruz ezin ordain daitekeen poza dakar.

BIDEZKO MERKATARITZA

Garapen-bidean dauden herrialdeek giza eta natur baliabidez hornitzen dituzte herrialde garatuak, beren bizitza-maila handiari euts diezaioten. Azken urteotan, gainera, eskulan merkea ematen diete fabrikak herrialde horietan kokatzea erabakitzen duten enpresei. Horrela jokatuz, enpresa horiek prezioei eusten diete eta ez dituzte ordaintzen azkenean beren produktuak salduko dituzten herrialdeetan izango lituzketen kostuak.

Bidezko merkataritzak bidezko irtenbidea eskaintzen die garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizleei, eta haien langile-eskubideak bermatzen ditu. Haien produktuak bidezko merkataritzako dendetan eros daitezke, eta egunero erabiltzen ditugun produktu askoren alternatiba ona dira.

Kataluniaren ondotik, Euskadi da bidezko merkataritzako produktueta biztanleko dirurik gehien gastatzen duen autonomia-erkidegoa: 485 euro mila biztanleko (milioi bat euro inguruko salmentak).

BIDEZKO MERKATARITZAKO PRODUKTUEK HAUXE BERMATZEN DUTE:

- 1.- Antolakuntza demokratikoa eta parte hartzekoa enpresa ekoizleetan.
- 2.- Lan-baldintza duinak; bidezko soldatak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, eta langileen osasunerako arriskurik eza.
- 3.- Etekinak komunitatearen oinarritzko premiak betetzeko erabiltzea (elikadura, osasuna, hezkuntza eta abar).
- 4.- Ingurumena errespetatzea, tokian tokiko ingurunea arriskuan jartzen duten produktuak erabili gabe.
- 5.- Haurren lana debekatzeko.
- 6.- Erakunde banatzailearekin bidezko prezioa ezartzea, produktuak eta epe luzeko merkataritza-harremanak aldeztu aurretik finantzatu, komunitateek beren garapena planifikatu ahal izateko.

Honako hau bidezko merkataritzaren nazioarteko zigilu bat da, "Fairtrade Labelling Organization Internacional" izeneko erakundearena. Gaur egun 19 herrialdetara zabalduta da, eta lau produktutan erabiltzen hasiko da: kafean, txokolatean, tean eta azukrean.



www.e-comerciojusto.org orrian bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten dendak zerrenda aurkituko duzu.



6

ONDASUN BATZUEK EHUN URTE IRAUTEN DUTE

Zergatik ekin?

Erosten ditugun gauza guztiek bizialdi mugatua dute. Supiztekotik hasi eta egongelako telebistaraino, lehenago edo geroago, produktuek beren zerbitzua egiteari uzten diote. Iraupen luzeagoak eta konpontzen errazak diren gauzak askoz ere hobekak dira ingurumenarentzat. Izan ere, edozein produktu fabrikatzeko behar diren lehengaien kopurua murrizten du horrek.

EKINTZA: erabili eta botatzeko produkturik ez

- Produktuak erosterakoan, garrantzi handia eman sendotasunari, iraunkortasunari eta konpontzeko erraztasunari.
- Ez erosi produktu iraunkorren erabili eta botatzeko aldaerarik (argazki-kamerak, bizar-labanak, plastikozko plater, edalontzi nahiz mahai-tresnak...).
- Pilarik behar ez duten aparatuak erabili. Pilak behar badituzte, kargagarriak erabili arrunten orde.

Aurrezpena Lurrarentzat



Produktuen iraupen luzeagoak espazio handia aurrezten du hondakindegietan.

Aurrezpena zure etxearentzat




Hasieran produktu iraunkorrak garestiagoak badira ere, azkenean merkeago ateratzen dira, denbora luzean ez baitira berritu behar.

KONTSUMO-GAIEN BIOGRAFIA

Azken urteotan, erosten ditugun objektuen bizialdi baliagarria izugarri laburtu da. Eta kontsumo-ondasun guztiekin gertatzen da hori: bai erabili eta botatzekoekin (ontziak, esaterako), bai itxuraz iraunkorrak direnekin (etxetresna elektrikoak eta brikolajerako lanabesak, adibidez). Bizar-labanaren kutxatila, esaterako, gurasoen eskuetatik semeen eskuetara pasatzen zen antzina; gaur egun, ordea, iraupen labur-laburrekoa da, erabili eta botatzeko bizar-aitzurra asmatu baita.

Fabrikatzaileak gogotik saiatzen dira beren produktuen diseinu berriko bertsioak merkaturatzen. Haien eraginda, kontsumitzaileek hozkailu zaharra bota eta berria erosten dute, edukiera handiagokoa, ate gehiago eta ezaugarri berriak dituena. Batzuetan, hori onuragarria da ingurumenarentzat -energia xahutzen duen modelo baten ordez gutxiago kontsumitzen duen modelo bat erosten badugu, adibidez-, baina askotan premiarik gabeko gastua da.

Herialde batzuetan, truke-elkarteak edo denbora-bankuak sortzen ari dira. Haien bidez, herritarrek produktuak edo zerbitzuak trukatu ahal dituzte, "erabili eta bota" filosofiak dakarren baliabide-xahuketa eragozteko. Web orri honetan informazioa aurkituko duzu: www.bancodeltiempo.org



7

GAUZA BAKOITZA BERE LEKUAN!

Zergatik ekin?

Etxean sortzen duzun zarama gehiena hondakindegietara joaten da. Neurri ugari hartzen dira hondakindegiek sortzen dituzten arazoak konpontzeko, baina guztietan onena zaraman dauden lehengai baliotsuak birziklatzea da.

Ba al zenekien tona bat paper birziklatzean 17 zuhaitz heldu salbatu eta 20.000 litro ur aurrezten direla? Eta pila batek 1.000 urte behar dituela desagertzeko?

Zarama birziklatzeko gakoa beraren osagaiak bereiztea eta bakoitza bere edukiontzian uztea da, elkarrekin nahasi eta zikindu baino lehen.

EKINTZA: parte hartu hondakinak gaika biltzeko programetan

- Erabili etxetik hurbil dituzun edukiontziak. Kaleko edukiontzietara ez ezik, garbiguneetara ere eraman ditzakezu hondakinak.
- Sailkatu hondakinak etxean bertan, eta edukiontziaren barruan utzi beti.
- Gogoan izan edukiontzi horian hondakin hauek utzi behar dituzula: tetrabrikak, latak, metalezko estalkiak, plastikozko botilak, jogurt-ontziak, plastikozko poltsak eta poliespanezko erretiluak.
- Edukiontzi nahikorik ez badago, parte har ezazu zure udalerriko edo eskualdeko Tokiko 21 Agendako foroetan, eta edukiontzi gehiago jartzea proposatu.

Aurrezpena Lurrarentzat



Hondakindegietan milaka tona lehengai geratzen dira lurperatuta. Gaikako bilketa bultzatuz gero, lehengai horiek ekoizpen-ziklora itzul daitezke.

Aurrezpena zure etxearentzat



Ontziak birziklatuz gero, ez dira garestitzen lehengaiak urritzearen ondorioz.

JOAN-ETORRIKO HONDAKINAK


Aldaketa handiak gertatu dira etxeko hondakinak tratatzeko moduan. Gutxieneko birziklatze-kuotak ezarri dira ontzi eta bilgarrietarako eta, horrekin batera, hondakindegietan lurperatzen den zaramaren ehuneko gutxitu behar da. Horri dagokionez, **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020k** helburu zehatza ezarri zuen: hondakindegietara eramaten diren hiri-hondakinak guztira sortutako hondakinaren %75eraino murriztea, eta dagoeneko %65era iritsi gara.

Erakundeek, fabrikatzaileek eta herritarrok batera egin behar dugu gaikako bilketaren bidaia.

Gaur egun, beirarako edukiontziek ontzi eta botila erabilien %40 inguru jasotzen dute. Eta paperaren %45 baino apur bat gehiago jasotzen da; kopuru horretatik, zati bat dagokion edukiontzietan jasotzen da, baina askotan bulegoetan papera bereizita jasotzen da.

Hondakinak gaika biltzeko, ontzietarako edukiontziak dira jarri diren azkenak, edukiontzi horiak. Bertan utzi behar dira tetrabrikak, latak, metalezko estalkiak, plastikozko botilak, jogurt-ontziak, plastikozko poltsak, poliespanezko erretiluak eta, oro har, paperaren, beiraren edo materia organikoaren edukiontzian ezin utz daitezkeen guztia.

Gaikako bilketarako gure kaleetan egon ohi diren edukiontzietan ezin utz daitezkeen hondakinak ere badaude, daukaten bolumena edo osaera aintzat hartuta. Hondakin horietako gehienak garbiguneetan biltzen dira. Garbiguneei buruzko informazio zehatza nahi baduzu, kontsulta ezazu, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren web orrian (www.ingurumena.net), Ingurumen Saileko hondakinaren atala.



ZEHATZAGO

Ingurumenaren alde ekintza **gehiago egin nahi baduzu**, zerrenda honetako helbideetara jo dezakezu.

BESTE URRATS BAT

• Kontsumo gelak

Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritzaren prestakuntza iraunkorreko zentroak dira. Kontsumitzaileak prestatzeko jarduerak diseinatu, egin eta garatzen dituzte, teknologia berriak erabiliz. Taldeak nahiz pertsonak joan daitezke bertara. Egoitzak dizute EAEko hiru hiriburuetan. Informazio gehiago:

http://www.euskadi.net/consumo/indice_c.htm

• Kontsumo Zerbitzua. Bizkaiko bulegoa

Concha kalea, 23. · 48010 Bizkaia
Tel.: 94 403 14 00 / Fax: 94 403 19 67

e-bizkaia@ej-gv.es

• Kontsumo Zerbitzua. Arabako bulegoa

Samaniego, 2-4º · 01008 Gasteiz
Tel.: 94 501 77 70 / Fax: 94 518 70 63

e-araba@ej-gv.es

• Kontsumo Zerbitzua. Gipuzkoako bulegoa

Easo, 10-4º · 20006 Donostia
Tel.: 94 302 25 00 / Fax: 94 302 25 42

e-gipuzkoa@ej-gv.es

• Nekazaritza Ekologikoko Elkaratek eta Federazioek

produktuen, denden eta azoketako saltokien zerrenda emango dizute.

EKONEKAZARITZA

Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Federazioa
Urteaga kalea, 23. Nekazaritza bulegoa · 20570 Bergara
Tel.: 943 76 18 00 | Fax: 943 76 02 94

www.ekonekazaritza.net

ekonekazaritza@euskalnet.net

BIONEKAZARITZA

Nekazaritza Ekologikoko Arabako Elkartea
La Paloma, 6 behea
01002 Gasteiz
Tel.: 945 26 10 47

LURREKO

Bizkaiko Nekazari Ekologikoen Elkartea
Muruetza, 6
48220 Abadiño
Tel.: 94 623 27 30

EKOLUR BIZKAIA

Nekazaritza Ekologikoko Bizkaiko Elkartea
Garaioltza, 23
Lorra, 48196 Lezama
Tel.: 94 455 50 63

BIOLUR GIPUZKOA

Nekazaritza Ekologikoko Gipuzkoako Elkartea
Urteaga kalea, 23
20570 Bergara
Tel.: 943 76 14 47

- **Garbiguneei** buruzko informazio zehatzagoa nahi baduzu, deitu telefono hauetara:

Bilbo: Bilbogariak: 010 (Bilbon bizi direnentzat baino ez)
Donostia: San Markosko Mankomunitatea: 943 21 49 77
Gasteiz: 010 (Gasteizen bizi direnentzat baino ez)
Aguraingo garbigunea: 945 31 26 51
(Agurainen bizi direnentzat baino ez)
Dulantziko garbigunea: 945 42 00 27
(Dulantzin bizi direnentzat baino ez)
Debagoieneko Mankomunitatea: 943 79 33 99
Lea-Artibai (Garbiker): 94 403 40 90

- **Produktu** batek bere bizi-ziklo osoan ingurumenean duen eragina apaldu duen eta, beraz, **iraunkorra** den jakin nahi baduzu, www.productosostenible.net web orrian sar zaitezke.
- Donostiako Agenda 21-ren web orrian, **bigarren eskuko produktuen** DONOSTITRUK merkatua aurkituko duzu: www.agenda21donostia.com